

4. IRABAZI ITURRIAK

Proiektuaren diru-iturri nagusia zigarro-muturren bilketa eta kudeaketa zerbitzutik etorriko da. Jarduera honengatik Erakunde Publikoei hileko kuota bat kobratuko diegu, espazio publikoetan zigarro-muturren bilketa bermatzeko.

Bigarren mailako diru-sarrera gisa, birziklatutako paperaren salmenta egingo da, bai tokiko dendetan bai online bidez. Orri bakoitzaren prezioa 0,5€ eta 1€ bitartekoa izango da, eta paketeen prezioak tamainaren arabera aldatuko dira (100 orri: 5–10€, 200 orri: 10–15€, eta pakete handiagoak ikastetxe eta enpresentzat).

Hasieran, proiektua martxan jartzeko 2.000€-ko mailegua eskatuko da, materialak eta lehen ekoizpena finantzatzeko. Horrela, diru-sarrera egonkorrak lortuko dira eta proiektua egonkortuko da.

